

Ebazpena: R001/2026

Espedientea: E013/2023

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 28a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita argitzea ea agentzia horrek ondo baliatu duen ikuskapen- eta ordainarazte-eskumena COCA-COLA EUROPACIFIC PARTNERS IBERIA SL (aurrerantzean, CCEPI) (IFZ: X00000001) entitatearen 2016ko azken hiruhilekoko eta 2017tik 2019rako ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 13/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2023ko urtarrilaren 9an, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak AXX XXXXXXXX1 eta AXX XXXXXXXX2 desadostasun-aktak hasi zituen 2016ko azken hiruhilekoko eta 2017tik 2019rako ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren harira.

Akta horietan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak CCEPI erregularizatu zuen, azken horrek erosten bide duelako Europar Batasunaren barruan

freskagarria fabrikatzeko erabiltzen den oinarri-kontzentratua, eta ez ziolako kanonen ziozko atxikipena egin establezimendu iraunkorrik gabeko hornitzaile ez-egoiliarrari.

2.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak bere idazkian adierazitakoaren arabera, gatazka horrek zuzeneko lotura bat dauka 45/2015 gatazkarekin eta gatazka metatuekin (55/2015, 56/2015, 57/2015, 58/2015, 37/2016, 38/2016, 2/2018, 35/2018, 13/2019, 16/2019, 17/2019, 18/2019, 19/2019, 20/2019, 21/2019, 25/2019 eta 27/2021), gatazka horietan ere horixe baitzen eztabaidagaia, hau da, Europar Batasunaren barruan norik erosten eta, gero, entregatzen zuen oinarri-kontzentratua.

Gatazka haietan, gatazka honetan planteatzen diren desadostasun guztiez arduratu ziren; hori dela eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erregularizazioak (hots, gatazkak eragin dituzten erregularizazioak) egitate berberetan oinarritzen dira, eta aurkeztutako frogak ere berdin-berdinak dira.

Berdinak direnez, erabaki da 27/2022 Ebazpeneko aurrekari guztiak gatazka honetara ekartzea; beraz, errepikatutzat jo behar ditugu hemen.

3.- Gatazka hau, era berean, zuzen dago lotuta 2017-2019ko BEZari buruzko 15/2023 gatazkarekin, zeina 44/2025 Ebazpenaren muina izan baitzen, eta, hortaz, egokia da haren aurrekari guztiak ekartzea gatazka honetara.

4.- 2023ko otsailaren 8an, BFAk inhibitzea eskatu zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, hark baliatutako eskumenari zegokionez, ulertuta ezen, beste arrazoi batzuen artean, Europar Batasunaren barruko eroslea zela COMPAÑÍA NORTEÑA DE BEBIDAS GASEOSAS SL (aurrerantzean, NORBEGA) (IFZ: X00000002).

5.- Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak uko egin zion, isilbidez, inhibizio-errekerimenduari, eta berronetsi egin zen bere eskumenean.

6.- 2023ko martxoaren 10ean, BFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, zeina 13/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

1.1.- Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua eginkizun hauek esleitzen dizkio Arbitraje Batzordeari:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

Bestalde, 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 11. artikulua adierazten du foru-aldundiek gatazkak sustatu ahal izango dituztela honako kasu hauetan:

a) Ekonomia Itunean bildutako arauen aplikazioa dela-eta, beren burua eskuduntzat jotzen dutenean, tributu jakin baten kudeaketari, likidazioari, bilketari, ikuskapenari edo berrikuspenari dagokionez, baldin eta tributu horri buruz Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioa eginkizun horiek egikaritzen ari bada edo egikaritu baditu.

b) Ekonomia Itunean bildutako arauen aplikazioa dela-eta, beren burua eskuduntzat jotzen ez dutenean, tributu jakin baten kudeaketari, likidazioari, bilketari, ikuskapenari edo berrikuspenari dagokionez, baldin eta tributu horri buruz Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioak aldeztu badu foru-aldundietako bat eskuduna dela prozedura horietan.

c) Sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan, administrazio bakoitzari dagokion zatia zuzena ez dela irizten dionean.

d) Ekonomia Itunean bildutako arauen aplikazioa dela-eta, tributu-betebeharpeko batek bere egoitza fiskala foru-lurraldean edo lurralde erkidean duela irizten dionean eta Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioa ados ez dagoenean.

e) Lotuneen aplikazioa dela-eta, Estatuko Administrazioan tributu-betebeharpeko batek aitortutako eta ordaindutako tributu jakin baten ordainarazpena dagokiola irizten dionean, edo baldin eta tributu horri buruz administrazio hori tributu-betebeharpeko hari zuzendu zaionean zerga hori aitortu dezan edo ordain dezan.

f) Akordiorik lortu ez denean Ekonomia Itunaren 64. artikuluko b) letran aurreikusitako kontsultak ebazteko proposamenaren inguruko oharrei buruz.

g) Akordiorik lortu ez denean Ekonomia Itunaren 47 ter artikuluan aurreikusitako prozeduran egindako oharrei buruz.

1.2.- Araudi horrekin bat etorruta, 27/2022 Ebazpenean ezarri zen Arbitraje Batzorde hau dela gai hauetaz arduratzeko eskuduna (alderdi batek ere ez zion gogoeta horri buru egin):

a) Ea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskumenik daukan XXX/XX Taldeari alde bakarrez hasteko BEZaren akta bakarra.

b) Ea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskumenik daukan CEPIk (lehen, CCIP zen) egindako eragiketak kalifikatzeko.

c) Ea gatazka garaiz kanpo planteatu den, goizegi aurkezteagatik, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegatu moduan.

d) Ea ebazpenik eman den NORBEGAk egindako kontsultari emandako erantzunean ustez adierazitako irizpidearen kontra.

Ondorioz, errepikatutzat jotzen ditugu 27/2022 Ebazpenean azaldu eta onartutako argudioak, Arbitraje Batzordeak gatazka honetan planteatzen diren desadostasunez arduratzeko eskumena edukitzeari dagokionez.

2.- Arbitraje Batzordearen 27/2022 Ebazpenak, besteak beste, akta hauek aztertu zituen: COCA COLA IBERIAN PARTNERS SA (lehen CCIP, eta orain CEPI) entitateari 2013ko ekitaldiagatik eta XXX/XX Taldeari (non CCIP baitzen burua) 2014tik 2016ra arteko ekitaldiengatik BEZaren inguruan hasitako aktak, CCIPen 2013ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari (SZ) buruzko aktak eta hainbat BEGari BEZaren eta SZren inguruan hasitako aktak.

Hala, ulertu zen prozedura zuzena jarraitu zela CCIPi eta XXX/XX Taldeari BEZaren inguruan hasitako aktetan, kontuan hartuta akta bakarra lankidetzaprozedura bat dela, Ekonomia Itunak ezarritakoa, Auzitegi Gorenaren 2024ko martxoaren 21eko epaiak sendotu bezala (ECLI:ES:TS:2024:1527). Era berean, aztertu zen ea Europar Batasunaren barruan nork erosten duen COCA COLA fabrikatzeko erabiltzen den "oinarri-kontzentratua", eta ondorioztatu zen CCIPek egiten zuela erosketak hori, NORBEGAREN kalterako; hala ere, ulertu zen berriro kalkulatu behar zela eragiketen bolumen-proporzioa, Bizkaian kokatuta zeudelako NORBEGARI zuzendutako oinarri-kontzentratuaren erosketak (Europar Batasunaren barruan).

Arbitraje Batzordeak, bestalde, deklaratu zuen baliogabeak zirela CCIPi SZren inguruan hasitako aktak eta BEGA entitateei BEZaren eta SZren inguruan hasitako aktak, irizita prozedurazko akats bat egin zela ez aritzeagatik BFArekin lankidetzan. Auzitegi Gorenak berretsi duenez, Batzordeak ez dauka eskumenik administrazioaren egintzak deuseztatzeko, bazik ez soilik egintzok deklaratzeko baliogabeak direla deuseztasun- edo deuseztagarritasun-arrazoiengatik. Hortaz, 27/2022 Ebazpenean ez zen aztertu benetan zergatik egin zen erregularizazioa: ea NORBEGA oinarri-kontzentratuaz bestelako produktuen eroslea zen Europar Batasunaren barruan (botila-irekitzekoak, mahaiak, aulkiak, terrazarako itzalkinak...), eta, beraz, gatazkaren ebazpenetik kanpo geratu zen.

CCIP oinarri-kontzentratuaren Europar Batasunaren barruko erosletzat hartzeari buruz, Arbitraje Batzordeak deklaratu zuen ezen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskumena zeukala ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga kanon gisa erregularizatzeko: zenbateko hori atxiki eta sartu egin beharko zatekeen, hornitzailea establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra delako.

3.- Akten ondoriozko likidazioen aurka, errekurtsua jarri zen bide ekonomiko-administratiboan, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusian.

Nahiz eta Arbitraje Batzordeak baliogabe deklaratu BEGA entitateei BEZean eta SZn egindako likidazioak, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ez zuenez jarri egintza horren aurkako errekurtsorik, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak baloratu zuen zein izan zen NORBEGAREN bitartekaritza-lana oinarri-kontzentratuaz bestelako produktuetan. Hori dela eta, 2025eko urtarrilaren 30eko hainbat ebazpenetan, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak ulertu zuen Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren likidazioek ez zutela nahikoa hutsaltzen NORBEGAREN bitartekaritza-eginkizuna, eta, beraz, deuseztatu egin zituen.

2024ko azaroaren 26ko hainbat ebazpenetan, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak ere erabaki zuen deuseztatzea CCIPi eta XXX/XX Taldeari BEZaren inguruan hasitako likidazioak, NORBEGAK oinarri-kontzentratuaren erosketan egindako bitartekaritza-lanagatik.

4.- Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak BEZaren inguruan emandako ebazpenen aurka, bestalde, errekurtsosoa jarri zen Auzitegi Nazionalean, baina, ebazpen hau emateko egunean, hark ebatzi gabe dauzka.

5.- Auzitegi Gorenaren 2025eko uztailaren 18ko epaiak (ECLI:ES:TS:2025:3615) ezarri zuen Arbitraje Batzordeak daukala eskumena zehazteko nor den Europar Batasunaren barruko eroslea. Alabaina, bere egin zuen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak emandako ebazpenetako arrazoiketa, eta, horrenbestez, ezeztatu egin zuen Arbitraje Batzordearen 27/2022 Ebazpena; ondorioz, deuseztatu egin ziren Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2013ko (CCIP) eta 2014-2016ko (XXX/XX Taldea) BEZagatik egindako likidazioak.

6.- Kontuan hartuta erregularizazioaren egitate erabakigarriak, egitate horiek finkatzeko kontsignatutako frogak eta haien balorazioa berdin-berdinak direla

Auzitegi Gorenak deuseztatutako likidazioetan eta aurkaratutako aktaren ondoriozko likidazioan, Arbitraje Batzordeak nahitaez jarraitu beharko dio Auzitegi Gorenak emandako irizpideari, eta baliogabe deklaratu behar ditu Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2017-2019ko BEZari egindako likidazioak.

7.- Ondorioz, NORBEGA denez Europar Batasunaren barruan oinarri-kontzentratua erosten duena, BFari dagokio, eta ez Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga kanon gisa erregularizatzea, hornitzailea establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra delako.

8.- 27/2022 Ebazpeneko argudioak errepikatutzat jotzen ditugu, hutsaldu dadin gatazka goizegi planteatzeagatik garaiz kanpoko delako ideia, eta, era berean, ez da egokia pronuntziamendu espresurik ematea NORBEGAK planteatutako tributu-kontsultaren ondoreei buruz, alferrikakoa litzatekeelako.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea baliogabeak direla CCEPIri 2016ko azken hiruhilekoko eta 2017tik 2019rako ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren harira hasitako aktak, eskumen faltagatik, Europar Batasunaren barruko erosle eta atxikitzailea BFaren ikuskapen-eskumenaren mende dagoelako.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta, era berean, COMPAÑÍA NORTEÑA DE BEBIDAS GASEOSAS SL (NORBEGA) eta COCA-COLA EUROPACIFIC PARTNERS IBERIA SL entitateei.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.